



BURLATAKO UDAL KIROL ESKOLEN BERRITZEA 2026-2027

Tokia berritzeko epea ireki da Burlatako Udal Kirol Eskoletarako, 2026-2027 denboraldiari begira.

1. Norentzat: 2025-2026 Udal Kirol Eskoletan plaza duten ikasleak, adin hauen barruan:

	Adina BERRITZEA BAI	Adina EZ BERRITZEA (Klubaren bidezko kudeaketak)
Xakea	2010etik 2020ra	2009 eta aurreko urteetan
Atletismoa	2010etik 2018ra	2009 eta aurreko urteetan
Saskibaloia	2011tik 2019ra	2010 eta aurreko urteetan
Eskubaloia	2011tik 2019ra	2010 eta aurreko urteetan
Beisbola / Sofbola	2011tik 2019ra	2010 eta aurreko urteetan
Futbola	2011tik 2019ra	2010 eta aurreko urteetan
Gimnasia Artistikoa	2011tik 2020ra	2010 eta aurreko urteetan
Gimnasia Erritmikoa	2011tik 2020ra	2010 eta aurreko urteetan
Kick Boxing	2011tik 2014ra	2010 eta aurreko urteetan
Judoa	2011tik 2020ra	2010 eta aurreko urteetan
Borroka Olimpikoa	2011tik 2020ra	2010 eta aurreko urteetan
Esku Pilota	2011tik 2019ra	2010 eta aurreko urteetan

2. Epea: **2026ko maiatzaren 5etik 18ra.**

2.1. Epe horretatik kanpo, ez dugu inolako toki-berrikuntzarik onartuko. Ordainketa adierazitako epean egiten ez bada, plazaren erreserba galduko da.

2.2. Tokia berritzeak ez du bermatzen tokia egonen denik, eskari gutxi izatearen ondorioz taldea osatzen ez bada, edota eskari gehiegi izatearen ondorioz, Udalak eta/edo Klubak bere gain hartu ez badezakete.

3. 2026-2027 denboraldiari buruzko informazioa:

3.1. Klubak planteatutako entrenamendu-ordutegiaren eta taldeen antolaketaren berri emango dizue.

3.2. Aldaketak sor daitezke antolamendu-beharren arabera. Klubak aldaketa horien berri emango dizue.

4. Derrigorrezko tarifa:

4.1. Ez da kuotarik itzuliko kasu hauetan izan ezik:

a) Behar bezala justifikatutako arrazoi medikoa (derrigorrezko tarifa osoaren % 70 itzultzea).

b) Udalak eta/edo Klubak 2026-2027 denboraldirako proposatutako entrenamendu ordutegiak ez betetzeagatik.

4.2. Berritzea ordainketa batean edo bitan egin ahal izango da, hurrengo taulan jasotako kopuruaren eta daten arabera. **Berritzea ordainketa bakar batean egin nahi bada, maiatzaren 5etik 18ra egin behar da.**

